

## **Euskal Herria eredu demokratiko gisa: lurralde kosmopolitizatuaren gobernantza eraikitzen**

Estatu-nazioen ereduaren gainbehera ikusten ari garen garai honetan, Euskal Herriko erakundetze prozesu berezia eredu egokia izan liteke Europar integrazioa demoikrazia gisa ulertu eta gobernantza eredu eraldatzaileak garatzeko. Izan ere, modelo demokratikoaren oinarrian tokian-tokiko erakundeen autogobernua (demos baten ideian oinarritua, alegia) eta hauek inguruko gizarteekin amankomunean dauzkaten erronkei erantzun ahal izateko sortutako erakundeak (demos aniztasunean, demoien, oinarritua) zilegitasun naiz eraginkortasunaren ikuspegitik orekan mantentzea du helburu. Izan ere, globalizazioaren ondorioz lurralde bakoitzeko gizarteak naiz hauen arteko interakzioak guztiz eraldatu dira, paradigma nazional klasikoa kosmopolitizazio prozesu batean sartuz. Erakundeak eta hauek osatzen dituzten sistemak birpentsatzea ezinbestekoa da barne naiz kanpo solidaritatea, anitzen arteko elkarbizitza, interdependentzia ekonomikoak ala demokrazia bera bermatzeko. Euskal Herrian, hitzaldian jorratuko ez ditudan arrazoi anitzengatik, lurraldearen erakundetze prozesuan erronka horiek maiz bizi izan ditugu. Euskal Autonomi Erkidegoa (eta honen barne egitura forala), Nafar Erkidego Forala eta iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoen arteko harremanean, Euskal Herria osatzen duten demos anitz edo demoien gisa, demos bakoitzaren burujabetza errespetatu bitartean elkarlanerako bideak sustatzeko ekimenak konstante bat izan dira. Hitzaldi honetan erakundetze eredu hori ikuspegi demokratiko batetik aztertu, oreka bilatze horren hainbat arrakasta eta porrot eredugarri identifikatuz, eta etorkizunerako gobernantza garapen bideak proposatuko ditut.